



**RASSF-AREN ALERTAK ETA JAKINARAZPENAK
ELIKAGAIAK**

2009ko 3. LAUHILEKOA


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2009ko 3. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) elikagaien 947 alerta eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Identifikatutako arriskuak	Zenbatekoak
Mikotoxinak / biotoxinak	% 24,5
Kutsadura kimikoa	% 11,5
Kutsadura biologikoa	% 20
Metal astunak	% 8
Hondakinak	% 11
OGMak	% 10,5
Kutsadura fisikoa	% 4,5
Iruzurrak	% 5,5
Produktua gaizki kontrolatuta	% 4,5



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 81an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % 41,5 eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% 42,5) kakahuetea **Argentinatik** zetorren. Bigarren produktu garrantzitsua **pistatxoak** eta **pikuak** izan da, aflatoxinek eragindako kutsaduren %13 bakoitzak, eta kasuen %48an jatorria Iran izan da pistatxoaren kasuan eta %91,5an Turkia pikuen kasuan.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 45,5 eragin ditu. Kasuen % 8 **Salmonella enteritidis** espezieak eragin du, **arrautza** %57 portzentaian eragilea izanik eta jatorria jakinarazpen guztietan, hau da, %100ean Espainia izanik. Kasuen % 10 **Salmonella typhimurium** espezieak eragin du, eta **haragia** kasuen % 62,5etan hartu du parte. Haragiaren jatorria

europarra izan da kasu guztietan (% 100). Talde horretako protagonista *Salmonella* sp. izan da (kasuen % 82). Eta alerta gehien eragin dituztenak (% 30) oilategiko-hegaztiak izan dira europa izanik jatorria kasuen %68,5ean.


Kutsadura kimikoari dagokionez, **Koloragarriak eta Gehigarriak** izan dira eragile nagusiak (kasuen % 64,5). Mota askotako produktuak dira inplikatuak, baina ez dago besteekin erkatuz gero, zenbateko handiagoa duen produktu aipagarriarik. Inplikaturako produktuen etorki herrialdeak ere antzerako proportzioan azaltzen dira.

Metal astunak gero eta gehiago azaltzen dira jakinarazpen eta alertetan. Bigarren lauhileko honetan aipagarria **Merkurioa**, %55arekin. **Ezpatarraina**, kasuen %33,5ean eta **marrazoa** %31an, dira produktu inplikatuak. Bien kasuan, jatorriarik aipagarriena **Espainia** da. Ezpatarrainaren kasuan %54an eta marrazoaren kasuan %50ean.

Azkenik, aipatu behar dira **OGMek** eraginduko jakinarazpen kopurua, totalaren %10,5a. **Linazia** da produktu garrantzitsuena jakinarazpenetan (%87) eta **Kanada** jatorri herrialdea kasuen %75ean.

Mikotoxinak/Biotoxinak	219	Aflatoxinak	178(81%)	kakahueteak	73(41,5%)	Argentina	31(42,5%)
				pistatxoak	23 (13%)	Iran	11 (48%)
				pikuak	23 (13%)	Turkia	21(91,5%)
Kutsadura biologikoa	181	<i>Salmonella</i> sp.	82(45,5%)				
		<i>S. enteritidis</i>	7 (8%)	arrautzak	4 (57%)	Espainia	4 (100%)
		<i>S. typhimurium</i>	8 (10%)	haragia	5(62,5%)	Europa	5 (100%)
		<i>Salmonella</i> sp.	66 (82%)	oilategiko hegaztiak	20(31%)	Europa	17(85%)
		<i>Listeria monocytogenes</i>	27 (15%)	marrazoa	11 (40%)	Eskandinabia	6(55%)
Kutsadura kimikoa	104	Koloratzaile eta gehigarriak	67(64,5%)	espeziak, saltsak	ez dago produktu nabariagorik		
				goxokiak,ozpinetakoak	besteak baino		
Metal astunak	73	Merkurioa	40 (55%)	ezpatarraina	13(33,5%)	Espainia	7 (54%)
				marrazoa	12 (31%)	Espainia	6 (50%)
		Kadmioa	18(24,5%)	ez dago produktu nabariagorik			
OGMak	95 (10,5%)			linazi	79(87%)	Europa	59 (75%)

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:



Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 29 Turkiakoak dira, jarraian Txina dugu: kasuen % 19. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortzen duten herrialdeak Espainia kasuen % 15 eta Alemania % 12 dira. Azkenik, Amerikaren kasuan AEB dira nabarmen jakinarazpen gehien sortzen dutenak (%33,5) eta Kanada (%29).

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

Aurreko lauhilekoarekin erkatuz gero, ondorengoak da azpimarratzekoa:

- Aipagarria da *Salmonella enteritidis* jakinarazpenen igoera, % 1etik bigarren lauhilekoan eta hirugarren lauhilekoan, berriz % 8.
- Merkurio jakinarazpenen igoera garrantzitsua, % 34etik % 55era
- Aipatu behar dira OGMek eraginduko jakinarazpen kopurua, totalaren %10,5a. Linazia da produktu garrantzitsuen jakinarazpenetan (%87) eta Kanada jatorri herrialdea kasuen %75ean
- Kadmio jakinarazpenen jeitsiera, ia %10 batean.
- *Listeria monocytogenes* bakteriagatik jakinarazpenen mantentzea